

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

Organoa edo Batzordea: Osoko Bilkura.

Bilera-mota: ohikoa.

Eguna: 2009/10/28

Ordua: Hasiera: 19:30 eta bukaera: 20:30.

Tokia: Legazpiko udaletxeke Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Sotero Plazaola Odriozola, alkatea.

Mikel Alzelai Zulaika

Ane Urkiola Alustiza, EAJko zinegotzia

Francisco Javier Iraeta Alvarez, EAJko zinegotzia

Amaia Alcelay Guerrico, EAJko zinegotzia.

Lucía Areizaga Aranburu, AlkARBideko zinegotzia

M^a Aranzazu Arizmendi Gereñu, AlkARBideko zinegotzia

Vicente Garmendia Martinez, AlkARBideko zinegotzia

Iñaki Sanchez Gastañares, EB-Berdeak taldeko zinegotzia

Ana Salinero Maestre, atxiki gabeko zinegotzia

Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia

Fernando Arakama Fernandez, kontuhartzailea.

Ainhoa Urruela Bordegarai, idazkaria.

Etorri ez direnak:

Jose Morciollo Guerrero, PSE-EEko zinegotzia.

Aztergaiak:

1. Amaia Alcelay Guerrico zinegotziaren kargu hartzea.

2. Bidezkoa bada, joan den 2009/09/30eko bilkurari dagokion akta onartzea.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

3. Bidezkoa bada, Legazpiko ELBARRENA izeneko 52. J.I.H. eremuari dagokion Hirigintza-hitzarmena hasiera batean onartzea.

4. Bidezkoa bada, Legazpiko LEKUONA AZKUENEA izeneko 51. J.I.H. eremuari dagokion Hirigintza-hitzarmena hasiera batean onartzea.

5. Bidezkoa bada, AGITAX elkarteak 2010. urterako proposatutako tarifak onartzea.

OGASUNA:

6. 2010. urteko Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena.

Organo o Comisión: Pleno.

Tipo de Convocatoria: ordinaria.

Día: 28/10/2009

Hora: Comienzo: 19:30 y final: 20:30.

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Legazpi.

Asistentes:

Sotero Plazaola Odriozola, Alcalde.

Mikel Alzelai Zulaika

Ane Urkiola Alustiza, concejal de PNV

Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV

Amaia Alcelay Guerrico, concejal de PNV

Lucía Areizaga Aranburu, concejal de AlkARBide

M^a Aranzazu Arizmendi Guereñu, concejal de AlkARBide

Vicente Garmendia Martinez, concejal de AlkARBide

Iñaki Sanchez Gastañares, concejal de EB-Berdeak

Ana Salinero Maestre, concejal no adscrita

Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE

Fernando Arakama Fernández, interventor.

Ainhoa Urruela Bordegarai, secretaria.

Personas que no han acudido a la reunión:

Jose Morcillo Guerrero, concejal de PSE-EE

Personas que han excusado su asistencia:

Jon Erramun Uribeetxeberria Bidegain

Orden del Día:

1. Toma de posesión de la concejala Amaia Alcelay Guerrico.

2. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 30/09/2009.

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

3. Aprobación inicial, si procede, del Convenio Urbanístico correspondiente al ámbito A.A.I 52 ELBARRENA del municipio de Legazpi.

4. Aprobación inicial, si procede, del Convenio Urbanístico correspondiente al ámbito A.A.I 51 LEKUONA AZKUENEA del municipio de Legazpi.

5. Aprobación, si procede, de las tarifas propuestas para el año 2010 por AGITAX.

HACIENDA:

6. Propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales para 2010.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

7. Herrigintzari krediturako bermea eskaintzea modu horretan, "Herrigintza SA" sozietateak Legazpin sustatu dituen "Pisuzahar" izeneko 37. hirigintza-eremuko eta "Zaldu" izeneko 47. hirigintza-eremuko jarduketak aurrera eraman ahal izateko.

ALKATETZA:

9. Luzatu diren dekretuen berri ematea.
10. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak eta erabakiak:

1. Amaia Alcelay Guerrico zinegotziaren kargu hartzea.

Idazkariak hauteskunde-batzorde zentralak Amaia Alcelay Guerrico zinegotziaren egiaztatzea bidali duela jakinarazi du. Modu berean, aipatu zinegotziak ondasunen aitortzea aurkeztu duela esan du. Ondoren, Amaia Alcelay Guerrico andreak kargua eskuratu du eta zinegotzi karguaren jabe egin da.

2. Bidezkoa bada, joan den 2009/09/30eko bilkurari dagokion akta onartzea.

Aurreko bilkuraren akta aldeko 11 botorekin onartu da. Ana Salinero zinegotziak ondoko zuzenketa egin du: ez zela abstenitu dio, aurreko akta onartzearen aldeko botoa eman baitzuen.

3. Bidezkoa bada, Legazpiko Elbarrena izeneko 52. J.I.H. eremuari dagokion Hirigintza-hitzarmena hasiera batean onartzea.

Alkateak hartu du hitza. Gai hau joan den Hirigintza batzordean azaldu zen sakonki. Honako irizpen hau aurkeztu da:

1.- Legazpiko udalerriko ELBARRENA izeneko 52. J.I.H. eremuari dagokion Hirigintza-hitzarmena hasiera batean onartzea.

2.- Iragarkia jendaurrean agerian jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita 20 laneguneko epean. Epe horretan nahi adina erreklamazio eta alegazio aurkeztu ahal izango dira.

7. Solicitud de aval de Herrigintza para el crédito para continuar con las actuaciones del A.U. 37 "Pizuzahar" y A.U. 47 "Zaldu" en Legazpi promovidas por Herrigintza S.A.

ALCALDIA:

9. Dar cuenta de los decretos dictados.
10. Ruegos y preguntas.

Temas debatidos y acuerdos adoptados:

1. Toma de posesión de la concejala Amaia Alcelay Guerrico.

La secretaria expone que la Junta Electoral Central ya ha remitido la credencial de la concejala Amaia Alcelay. Así mismo, ha presentado la correspondiente declaración de bienes. Amaia Alcelay jura el cargo y por tanto toma posesión como concejala.

2. Aprobación, si procede, del acta de la sesión del 30/09/2009.

Se aprueba el acta anterior con 11 votos a favor. La concejala Ana Salinero realiza la siguiente corrección: indica que no se abstuvo sino que voto a favor de la aprobación del acta anterior.

3.- Aprobación inicial si procede del Convenio Urbanístico correspondientes al ámbito A.A.I 52 Elbarrena del municipio de Legazpi.

Toma la palabra el Alcalde. Este tema se trató en profundidad en la pasada comisión de urbanismo, elevándose al Pleno el siguiente dictamen:

1.- La aprobación inicial Convenio Urbanístico correspondiente al ámbito A.A.I. 52 ELBARRENA del municipio de Legazpi.

2.- Se somete a información pública por un periodo de 20 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

3.- Aipatu epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

Irizpena onartzeko botoetara jo ondoren, aldeko 9 botorekin eta 2 abstentziorekin (Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero) onartu da.

4. Bidezkoa bada, Legazpiko LEKUONA AZKUENEA izeneko 51. J.I.H. eremuari dagokion Hirigintza-hitzarmena hasiera batean onartzea.

Alkateak hartu du hitza. Gai hau ere joan den Hirigintza batzordean azaldu zen sakonki. Honako irizpen hau aurkeztu da:

1.- Legazpiko udalerriko LEKUONA AZKUENEA 51. J.I.H. eremuari dagokion Hirigintza-hitzarmena hasiera batean onar dadila.

2.- Iragarkia jendurrean agerian jarriko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita 20 laneguneko epean. Epe horretan nahi adina erreklamazio eta alegazio aurkeztu ahal izango dira.

3.- Aipatu epe horretan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, hasieran onartutakoa behin betiko onartuta geratzen dela ulertuko da eta, beraz, Udalbatzak ez du horren gainean erabaki berri bat hartu beharrik izango.

Irizpena onartzeko botoetara jo ondoren, aldeko 9 botorekin eta 2 abstentziorekin (Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero) onartu da.

HIRIGINTZA, OBRA ETA ZERBITZUAK:

5. Bidezkoa bada, AGITAX elkarteak 2010. urterako proposatutako tarifak onartzea.

Alkateak hartu du hitza. Gai hau ere joan den Hirigintza batzordean azaldu zen sakonki. Honako irizpen hau aurkeztu da:

3.- En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo con 9 votos a favor y dos abstenciones (Oscar J. Luis Murillo Pérez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero).

4. Aprobación inicial si procede, del Convenio Urbanístico correspondiente al ámbito A.A.I 51 Lekuona Azkuenea del municipio de Legazpi.

Toma la palabra el Alcalde. Este tema se trató en profundidad en la pasada comisión de urbanismo, elevándose al Pleno el siguiente dictamen:

1.- La aprobación inicial Convenio Urbanístico correspondiente al ámbito A.A.I. 51 LEKUONA AZKUENEA del municipio de Legazpi.

2.- Se somete a información pública por un periodo de 20 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín OFICIAL de Gipuzkoa, a fin de que puedan presentarse las reclamaciones y alegaciones que se estimen oportunas.

3.- En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo con 9 votos a favor y dos abstenciones (Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero).

URBANISMO, OBRAS Y SERVICIOS:

5. Aprobación, si procede, de las tarifas propuestas para el año 2010 por AGITAX.

Toma la palabra el Alcalde. Este tema se trató en profundidad en la pasada comisión de Urbanismo, Obras y Servicios, elevándose al Pleno el siguiente dictamen:

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

Taxien Gipuzkoako Elkarteak (AGITAX) Legazpiko udalerrian hiri barruko tarifak berrikus daitezela eskatuz aurkeztu duen idatzia ikusirik, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzordeak AGITAX elkarteak 2010. urterako aurkeztu dituen tarifak onartzea.

EAJ taldeko Fco. Javier Iraeta Alvarez zinegotziak hartu du hitza eta gurpil-aulkiak eramateko egokitutako taxiren bat dagoen galdetu du.

Alkate jaunak azterketa bat egin dela erantzun dio baina Mankomunitateak oraindik ez du erabaki gai honen gainean zer egin.

Irizpena onartzeko botoetara jo ondoren, aldeko 9 botorekin eta 2 abstentziorekin (Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero) onartu da.

OGASUNA:

6. 2010. urteko Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena.

Alkate jaunak hartu du hitza. Gipuzkoako Foru Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua aplikatuz eta bertan ezarritakoaren arabera, Legazpiko Udalak gure udalerrian gaur egun indarrean dauden Ordenantza Fiskaletako atal batzuk aldatzeko asmoa du.

Gaur egun bizi dugun testuinguru ekonomikoan, Legazpiko Udalak tarifen aldaketak zuhurtasun handiz aztertu beharra dagoela uste du. Horregatik, udal-zerga guztien tarifak izoztea proposatu du. Guztien tarifak zerga batena izan ezik: hiri-hondakin solidoen bilketa, garraioa eta errausteari dagokion udal-zergaren tarifa

Gai hori joan den Ogasun batzordean aztertu zen eta Osoko Bilkurari ondoko irizpena proposatzea erabaki zen:

Zergak arautzen dituen Ordenantza aldatzeari buruzko erabaki-proposamena onartzea.

Irizpena onartzeko botoetara jo ondoren, aldeko 9 botorekin eta 2 abstentziorekin (Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero) onartu da.

A la vista del escrito de la Asociación Gipuzkoana del Taxi (AGITAX) de revisar las tarifas urbanas en el municipio de Legazpi, la Comisión de Urbanismo, Obras y Servicios propone aprobar las tarifas presentadas por AGITAX para el año 2010.

Toma la palabra el Sr. Fco. Javier Iraeta Alvarez, concejal de PNV para preguntar si existe algún taxi acondicionado para sillas de ruedas.

El Alcalde responde que se ha realizado un estudio, pero que la mancomunidad no ha decidido todavía nada en relación a este tema

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo con 9 votos a favor y dos abstenciones (Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero).

HACIENDA:

6. Propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales para 2010.

Toma la palabra el Alcalde. En aplicación de la Norma Foral 11/1989 de 5 de Julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y conforme a lo dispuesto en la misma, el Ayuntamiento de Legazpi tiene la intención de modificar algún apartado de las Ordenanzas Fiscales actualmente en vigor en nuestro municipio.

En el contexto económico que vivimos actualmente, el Ayuntamiento de Legazpi ve necesario abordar con extrema cautela las modificaciones tarifarias. Por ello plantea congelar las tarifas de todos los tributos municipales con una sola excepción: La tasa por el servicio de recogida, transporte e incineración de residuos sólidos urbanos.

Este tema se trató en la pasada comisión de Hacienda, elevándose al Pleno el siguiente dictamen:

Aprobar la propuesta de acuerdo sobre modificación de Ordenanzas reguladoras de tributos.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo con 9 votos a favor y dos abstenciones (Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero).

7. Herrigintzari krediturako bermea eskaintzea, modu horretan, "Herrigintza SA" sozietateak Legazpin sustatu dituen "Pisuzahar" izeneko 37. hirigintza-eremuko eta "Zaldu" izeneko 47. hirigintza-eremuko jarduketak aurrera eramán ahal izateko.

Alkate jaunak hartu du hitza. Legazpiko Udalak berak bakarrik osatzen duen "HERRIGINTZA SAU" udal sozietateak Pisu-zahar izeneko 37. hirigintza-eremuaren eta Zaldu izeneko 47. hirigintza-eremuaren urbanizazio-lanak sustatzen ari da lankidetzaren bidez.

Joan den 2009ko irailaren 15eko Administrazio-kontseiluak aztertu ondoren, 2009ko irailaren 30eko Batzar Nagusiak obra horiek burutzeko 200.000,00 €ko finantzaketa-eskaintza KUTXAri ematea erabaki zuen.

Eskaintza horretan, horrelako eragiketetan ohikoa den bezalaxe, Legazpiko Udalak zenbateko hori bi urterako berme dezala eskatu da.

Berme hori eman ahal izateko ezinbestekoa da Udal Korporazioaren Osoko Bilkuraren oniritzia.

Gai hori joan den Ogasun batzordean aztertu zen eta Osoko Bilkurari ondoko irizpena proposatzea erabaki zen:

"HERRIGINTZA SAU" sozietateari 200.000,00 €ko bermea bi urterako emateko proposamena onartzea.

Irizpena onartzeko botoetara jo ondoren, aldeko 9 botoekin eta 2 abstentziorekin (Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero) onartu da.

ALKATETZA:

8. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Fco.Javier Iraeta Alvarez zinegotziak hartu du hitza eta euskara ikasteko ematen diren diru-laguntzei buruzko 5 dekretu daudela esan du. Horietako eskari bat ezeztatu egin da eta zergatik izan den jakin nahi du.

7. Solicitud de aval de Herrigintza para el crédito para continuar con las actuaciones del A.U. 37 "Pisuzahar" y A.U. 47 "Zaldu" en Legazpi promovidas por Herrigintza S.A.

Toma la palabra el Alcalde. HERRIGINTZA, S.A.U., sociedad municipal íntegramente participada por el Ayuntamiento de Legazpi está promoviendo las obras de urbanización del A.U.37 "PisuZahar" y A.U.47 "Zaldu" mediante el sistema de cooperación.

El Consejo de Administración de 15 de septiembre de 2009 analizó y la Junta General de 30 de septiembre de 2009 adjudicó a KUTXA la oferta de financiación de 200.000,00 € para su financiación.

En dicha oferta, como suele ser habitual en este tipo de operaciones, se solicita que el Ayuntamiento avale su importe por dos años de plazo.

La concesión del precitado aval habrá de ser aprobada por el Pleno de la Corporación.

Este tema se trató en la pasada comisión de Hacienda, elevándose al Pleno el siguiente dictamen:

Aprobar la concesión de un Aval a HERRIGINTZA, S.A.U. por un importe de 200.000,00 € y por un plazo de dos años.

Sometido el dictamen a votación se aprueba el mismo con 9 votos a favor y dos abstenciones (Oscar J. Luis Murillo Perez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero).

ALCALDIA:

8. Dar cuenta de los decretos dictados.

Toma la palabra Fco. Javier Iraeta Alvarez e indica que hay 5 Decretos en relación a las ayudas que se otorgan para estudiar euskera. En uno de los Decretos se deniega la ayuda y desea saber por que.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

Mikel Alzelai zinegotziak, kasu horretan, herritarrak ez dituela oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen esan du, beste erakunde batetik jaso duelako laguntza hori. Horrela erabaki zen Euskara batzordean.

9. Eskariak eta galderak.

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta presa bidez gizarte-larrialdietarako laguntzen gaineko mozioa aurkeztu du. Mozioa akta honi erantsi zaio.

Ane Urkiola zinegotziak mozioaren presa justifikatu du prestazio horien beharra egunetik egunera gehitu egiten direlako eta Gobernuak eskarien ehuneko ehuni erantzun behar die. Horretarako, gainera, partida bat dago onartuta 2009. ekitaldian. Mozio honen bidez koherentzia eskatzen zaio Kontseilariari adierazpenak egiten dituenean, hau da, ehuneko ehuni erantzun ahal izatea.

Segidan, Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza eta gogora ekarri du Osoko bilkura batean presazko mozioetan ez zuela parte hartuko esan zuela, mozio horiek apartekoak ez baziren behintzat. Hura esan ondoren, bi atentatuen gainean aurkeztu ziren presazko bi mozioetan hartu du parte, mozio horiek apartekoak zirela ulertu zuelako. Kasu honetan, gaiak duen garrantziari muzin egin gabe, aparteko gaia ez dela ulertzen du eta, beraz, ez du parte hartuko presari buruzko botazioan eta gaiari buruz egingo den debatean.

Mozioaren presa erabakitzeko botoetara jo ondoren, atzera bota da emaitza hauekin: aldeko 6 boto (Alkarbideko 3 zinegotziak eta EAJ taldeko 3 zinegotziak) eta aurkako 2 boto (Oscar J. Luis Murillo Perez, PSE-EEko zinegotzia eta Ana Salinero). Xotero Plazaolak, Mikel Alzelaik eta EB-Berdeak taldeko Iñaki Sanchez zinegotziak ez dute botazioan parte hartu.

Jarraian, Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta Agirre-Etxeberri familiarekin sinatutako hitzarmenari buruz beste mozio bat dutela esan du. Mozioa akta honi erantsi zaio.

Ane Urkiola zinegotziak gogora ekarri du Bozerramaileen batzordea egin zen bezperan egindako hirigintza batzordean hitzarmen honen

Mikel Alzelai responde que, en ese caso, se ha denegado la ayuda porque no se cumplen lo previsto en las bases al haberse recibido otra ayuda. En todo caso, se decidió así en la Comisión de Euskera.

9. Ruegos y preguntas.

Toma la palabra Ane Urkiola para presentar por urgencia una moción relacionada con las AES. La moción se anexa al presente acta.

Ane Urkiola justifica la urgencia de la moción al entender que la necesidad de estas prestaciones aumenta día a día y el Gobierno debe cubrir ya el cien por cien de las solicitudes, para lo que dispone ya de una partida presupuestaria habilitada en el ejercicio 2009. A través de esta moción se le reclama a la Consejera coherencia con sus propias manifestaciones, es decir, la cobertura del cien por cien.

Toma la palabra Iñaki Sanchez para explicar que en un pleno indicó que no iba a participar en las mociones de urgencia salvo en casos extraordinarios. Despues de eso participó y votó en dos mociones de urgencia que se habían presentado como consecuencia de sendos atentados, porque entendía que entraban dentro de los supuestos extraordinarios. Este caso, sin restarle un ápice de la importancia y trascendencia que tiene, no lo considera extraordinario y por tanto no entrará a votar la urgencia ni el debate de fondo.

Sometida la urgencia a votación, se desestima con 6 votos a favor (los tres concejales de Alkarbide y los tres del PNV) y 2 votos en contra (Oscar J. Luis Murillo Pérez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero). Xotero Plazaola, Mikel Alzelai y el concejal de EB-Berdeak Iñaki Sanchez, no participan en la votación.

Toma la palabra Ane Urkiola para indicar que tienen otra moción para presentar sobre el Convenio Agirre-Etxeberri. La moción se anexa al presente acta.

Ane Urkiola indica que, la idea de esta moción surge tras la información recibida a petición suya sobre el estado de este convenio en el turno de ruegos y preguntas de la última comisión de Urbanismo que se celebró la víspera de la Junta de

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

egoeraren berri jasotzea eskatu zuela eta han jasotako informazioaren ondorioa da orain aurkezten den mozioa. Hirigintza batzordean esan zitzaion Agirre-Etxeberri familiarekin hitzarmena sinatzeko hitzordua jarrita zegoela azaroaren 24an notarioaren aurrean. Modu berean jakinarazi zen Udalaren eta familiaren artean harremanik ez zegoela eta administrazioarekiko auzira jotzeko asmoa zegoela beste alderdiak hitzarmena ez sinatzea erabakiz gero. Gobernu-taldeak gaia bideratzeko egin duen ibilbidea ikusita, zalantzan jartzen dute hitzarmena sinatzeko gogoia baina badakite familiak sinatzeko asmoa duela. Zein egun den kontuan hartuz, hurrengo bilkura azaroaren bukaeran izango da eta orduan berandu izango da Osoko Bilkuraren aurrean zerbait aurkezteko. Aipatu mozioa honako hauek sinatzen dutela esan dute: Eusko Abertzaleak, Alkarbide, PSE-EE eta atxiki gabeko zinegotziak. Hitzarmena ez sinatzea udalerriko interesen kontra joan daitekeela uste dute.

Segidan, Alkate jaunak hartu du hitza eta hitzarmena ez dela azaroaren 24an sinatuko esan du, notario jaunak abenduaren 3ra atzeratu baitu eguna. Urte osoan egon da familiarekin negoziatzen eta horretarako borondatea duten edo ez abenduaren 3an ikusiko dela esan du.

Iñaki Sanchez jaunak hartu du hitza eta mozioaren edukia ezagutu daitekeen galdetu du.

Ane Urkiola zinegotziak mozioa banatzeko asmoa zuela esan du baina ez duela egin Iñaki Sanchez zinegotziak presazko mozioetan parte hartuko ez duela esan duelako.

Iñaki Sanchez zinegotziak hori aurreko mozioari buruz esan duela azaldu du.

Ane Urkiola zinegotziak mozioaren kopia banatu die bertaratutakoei.

Ondoren, Iñaki Sanchez jaunak hartu du hitza eta mozioaren presaren alde egingo duela eta mozioaren aurka joango dela jakinarazi du eta, ondoren erabakiko du administrazioarekiko auzira joan edo ez. Hala ere, ondokoa dio: lehenbizi, gai horretaz hitz egiteko mozioa aurkezteak dagokion informazio-batzordean hitz egin nahi ez dela erakusten du eta batzordea da gaiak eztabaidatzeko lekua. Bigarrenik, Patricio Etxeberria

Portavoces. Se les informó exclusivamente de la citación ante notario a la familia Agirre Etxeberri para el 24 de noviembre para la firma del Convenio. Se informó, así mismo, de la inexistencia de relaciones o contactos entre el Ayuntamiento y la familia y de la intención de recurrir al Contencioso Administrativo en caso de no firma por parte de la otra parte. Vista la trayectoria del tema con este equipo de gobierno, dudan seriamente de la verdadera voluntad para la firma, sobre todo constándole como les consta la voluntad de la familia para firmarlo. Vistas las fechas, el siguiente pleno de finales de noviembre es ya tarde para cualquier iniciativa ante el Pleno por parte de los grupos que suscriben esta moción. Indica que suscriben la moción: Eusko Abertzaleak, Alkarbide, PSE-EE y la concejal no adscrita. Consideran que la no firma de este convenio repercute negativamente en los intereses inmediatos del municipio.

Toma la palabra el Alcaldete para indicar que la firma no será el día 24, ya que finalmente el notario ha fijado la fecha para el día 3 de diciembre. Se ha estado negociando un año entero con la familia y si verdaderamente tienen esa voluntad se demostrará el 3 de diciembre.

Toma la palabra Iñaki Sanchez para preguntar si se podría conocer el contenido de la moción.

Ane Urkiola indica que pensaba repartir la moción pero que no lo ha hecho porque Iñaki Sanchez ha indicado su deseo de no participar en mociones de urgencia.

Iñaki Sanchez indica que eso lo ha manifestado en relación a la moción anterior.

Ane Urkiola reparte la moción entre los presentes.

Toma la palabra Iñaki Sanchez para indicar que participará y votará a favor de la urgencia y en contra de la moción para, en su caso, poderla recurrir al Contencioso Administrativo. Realiza así mismo, las siguientes manifestaciones: En primer lugar, que se presente una moción de este tipo por la vía de urgencia dice mucho de las ganas que se tiene de hablar este tipo de cosas en el seno de la Comisión Informativa correspondiente, que es donde habría que tratarlo. En segundo lugar, decidir a través de una moción de urgencia cual tiene que ser el destino de la villa de Patricio

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

jaunaren txaletaren erabilera erabakitzeke presazko mozioa erabiltzea ez dela egokia uste du. Mozioan jasotako erabilerak izango direla esatea jauntxokeria iruditzen zaio eta aurrera aterako dute gehiengo osatzen dutelako baina jauntxokeria da. Bestalde, zalantza du ea gai hori erabakitzeke eskumena Osoko Bilkurarena den; izan ere udal ondarearen kudeaketa (ondare horrek kopuru bat gainditzen ez badu) Alkatearen eskumena baita. Beraz, gaia aurkeztu den moduarengatik eta mozioaren edukiarengatik, mozioaren aurkako botoa emango duela adierazi du.

Jarraian, Alkate jaunak hartu du hitza eta mozioari buruz esango duen gauza bakarria Hitzarmenera joko duela da. Hitzarmenak etxe horretan joango dena udal-jabegokoa izango dela zehazten du eta Lenbur Fundazioa pribatua da. Eta ez da Patricio Etxeberria Elorza jaunari buruz ezer esaten. Sar daitekeen bakarria, hitzarmenean horrela jasota dagoelako Legazpi bai! Ekimena da. Gainontzekoak, ez dira sartzen hitzarmenaren arabera eta errekurritu egingo da. Gobernu-taldeak ez du mozioaren bozketan parte hartuko.

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta harriduta dagoela dio presazko mozioen gainean koherentzia falta handia dagoelako. Sanchez jauna nahastu egin da izapidearekin eta gaiari sartu da mozioaren presa eztabaidatzen ari ginenean. Modu berean, Alkateari esaten dio udal-erabilerak direla eta ez udal-jabegoa. Dena den, urtebete igaro da hitzarmen hau sinatu gabe; Alkateak ez du inizatibarik izan gaia kudeatzeko eta sortzen joan diren arazoak konpontzeko. Gaiak konpontzen joan dira baina ez ditu berak konpondu. Erabilerak ez dira arazo; beraien ustez hitzarmenaren laugarren xedapenean jasotakoaren arabera etxe horretako erabilerei buruz ez dago zalantzarik. Igaro den urte eta erdi honetan ez zaie Korporazioko taldeei xedapen horren edukiori buruz eztabaidatzea edo haiek lantzea proposatu, beraz, ez dago arazorik erabilerekin. Hitzarmena ez sinatzeko aitzakia dela uste dute, baina lortu behar dena beste alderdia hitzarmena sinatzera ez agertzea edo hitzarmena ez betetzea da. Hitzarmena ez sinatzearekin udalerrira ateratzen dela galtzaile uste du.

Etxeberria, le parece de lo más inapropiado. Decir de antemano que los usos para la villa son los recogidos en la moción le parece una autentica cacicada que sacaran adelante porque cuentan con mayoría, pero es una cacicada. Por otra parte manifiesta serias dudas de que el órgano competente para decidir sobre ello sea el Pleno del Ayuntamiento ya que el Patrimonio Municipal y su gestión, si este no supera una cuantía determinada es una competencia del Alcalde. Por todo eso y por la forma en la que se ha presentado el tema y por el contenido, indica que votará en contra.

Toma la palabra el Alcalde e indica que lo único que desea manifestar sobre esta moción es que se va a remitir al Convenio y el Convenio lo que marca es que lo que va a ir en esa vivienda tiene que ser de dominio municipal y Lenbur Fundazioa es privada. Y tampoco se dice nada de Patricio Etxeberria Elorza. El único que podría entrar, porque si se le cita en el Convenio, es Legazpi bai. Pero lo demás, por Convenio es imposible y eso se recurrirá. El equipo de gobierno no participará en la votación de la moción.

Toma la palabra Ane Urkiola para indicar que sorprende la no coherencia respecto al tema de las mociones de urgencia. Por que el Sr. Sanchez se ha confundido de trámite y ha entrado en el tema cuando se estaba discutiendo sobre la urgencia de la moción. Así mismo, le trasmite al Alcalde que se trata de usos exclusivamente municipales, no de dominio municipal. En todo caso, ha pasado ya más de un año desde que se pudo firmar este convenio, el Alcalde no ha tenido iniciativa alguna para gestionar y solucionar los problemas que han ido surgiendo y que se han ido solucionando pero no por el. Los usos no son un problema por que aunque ellos consideran que no hay lugar a dudas respecto de los usos de esa casa tal y como se recoge en la estipulación cuarta del Convenio. No se ha planteado nunca en este año y medio, a los grupos de la Corporación trabajar o debatir sobre el contenido de esta estipulación, por tanto el problema de los usos no existe. Lo consideran una excusa para no firmar el Convenio, pero hay que hacerlo de tal manera que sea la otra parte la que no concurra a la firma o la que incumpla. Cree que es el municipio el que está perdiendo con la no firma.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

Segidan, Alkate jaunak hartu du hitza eta orain gai honi buruz eztabaidatzeko unea eta lekua ez dela esan du. Baina garbi utzi nahi du norbaitek hitzarmen hori sinatu nahi badu bera dela eta hori ondo daki Aguirre-Etxeberri familiak. Eta familia da behin eta berriz hitzarmena sinatzeko momentua atzeratzen duena, asko direlako eta arazoak dituztelako.

Ondoren, Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza. Bere ustez, egi bakarra hitzarmena sinatzeko borondaterik egon ez dela da. Izan ere gai asko daude hor tratatuta, adibidez, Santa Teresa ikastetxearen gaia: Alkate jaunak Eusko Jaurlaritzatik balorazio bat egiteari buruz jasotako deia komentatu zuen: ez zen jakinarazpen ofiziala eskatzerik planteatu edo dei hori egiaztatuko duen ebazpenik; ez zen erabilitako balorazio-irizpideen gainean informazioa eskatzerik proposatu; ez zen Eusko Jaurlaritzara jo arazoa konpontzeko; ez zen kontra-eskaintza egitea planteatu,.... Gainerakoan lanari esker, arazo hori konpondu egin zen. Hona hemen beste arazo bat: industrialdeako errotonda egiteko lurzatia eman ondoren gainerako lurzatia ixtea. Itxitura hori errotondaren sustapenaren kontura egingo dela informatu behar zen bakarrik baina hitz egiten ez bada, ez dira gaiak konpontzen.

Erabilerei dagokienez, Korporazioaren gehiengo ados egonda, hitzarmenaren laugarren xedapenak dioena aintzat hartuta eta gaiari buruz Korporazioan eztabaidarik sortu ez dela kontuan hartuta, zergatik ezin dute beraiek inizatiba hartu eta Alkateari aipatu hitzarmena behingoz sina dezala eskatu?. Bere paralisiak udalerraren kalterako delako.

Ondoren, Alkate jaunak hartu du hitza eta hitzarmena familiak sinatu behar duela esan du. Eta etxearen erabilera, etxea jaso eta gero eztabaidatuko da eta ez lehenago.

Jarraian, Fco. Javier Iraeta zinegotziak hartu du hitza eta alderdietako batek etxearen erabilera zeintzuk izango diren esan duela zehaztu du eta alderdi hori familia da.

Alkate jaunak familiak laugarren xedapenari buruz eskutitza bidali zuela eta berak erantzun duela jakinarazi du.

Toma la palabra el Alcalde para indicar que empezar a debatir sobre este tema ahora no ha lugar. Pero quiere manifestar que si ha habido una persona interesada en la firma ha sido el y eso la familia Aguirre-Etxeberri lo sabe. Y la familia es la que solicita reiteradamente que se vaya retrasando, porque son muchos y tiene conflictos.

Toma la palabra Ane Urkiola e indica que consideran que la única verdad en este tema es que no hay voluntad porque ha habido muchos problemas enquistados en el tema, por ejemplo, de Santa Teresa: el Alcalde hablaba de una llamada telefónica del Gobierno Vasco en torno a una valoración: ni se cuestionó pedir una notificación oficial, o una resolución que diera cobertura a esa llamada, ni se cuestionó informarse sobre los criterios de valoración utilizados, ni se cuestionó acudir al Gobierno Vasco para resolverlo, ni se cuestionó hacer ninguna contraoferta... Gracias a la iniciativa de los demás este problema se solucionó. Otro de los problemas: un cerramiento del terreno restante después de la cesión del terreno a la rotonda de la industrialdea. Solo se trataba de informar de que va con cargo a la promoción de la rotonda, pero si no se habla no se solucionan los puntos.

En el tema de los usos, estando la mayoría de la Corporación de acuerdo, con la literalidad de la estipulación cuarta del Convenio y no habiéndose planteado debate alguno en la Corporación sobre el tema, ¿Por qué no pueden tomar ellos la iniciativa y pedirle al Alcalde que firme de una vez por todas el Convenio?. Porque su parálisis está perjudicando ya al municipio.

Toma la palabra el Alcalde para indicar que el Convenio lo tiene que firmar la familia. Y el uso de la casa, habrá que debatirlo después de tener la casa y no antes.

Toma la palabra Fco. Javier Iraeta para indicar que una de las partes ya ha manifestado cuales serán los usos de la casa, en concreto la familia.

El Alcalde indica que recibió una carta de la familia sobre la estipulación cuarta del Convenio a la cual ha contestado.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

Fco. Javier Iraeta jaunak Hirigintza batzordean ez zela eskutitz horren berri eman esan du.

Alkate jaunak eskutitza berak jaso zuela eta horregatik ez zuela ezer esan erantzun du.

Fco. Javier Iraetak eskutitz horren berri izan dutela eta horregatik aurkeztu dutela mozioa adierazi du.

Alkateak debate hau abenduaren 3 igaro eta gero eman behar dela dio, Patricio Etxeberria familiak hitzarmena sinatuko duen edo ez ikusi eta gero.

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza eta gai honi buruz jaso duten informazioa Alkateari galdetu diotelako jaso dutela esan du. Sinadura azaroaren 24an izango zela uste zuten eta horregatik aurkeztu da mozioa Osoko Bilkura honetan.

Alkate jaunak egun-aldaketa notarioaren gauza izan dela zehaztu du.

Ane Urkiola zinegotziak hainbat gestio egin dituztela baina ez dutela errentagarritasunik atera esan du; Alkate jaunarekin leialak izan dira baina gai hau urte eta erdi luzatu da eta hitzarmena sinatzeak onurak ekarriko dizkio udalerrinari. Borondatea falta dela uste du.

Alkate jaunak borondate hori abenduaren 3an ikusiko dela esan du.

Ane Urkiola zinegotziak Alkatea ez dela gainerako taldeekin komunikatzen uste du. Ez du ulertzen nola sina daitekeen hitzarmen bat gaiari buruz desadostasunak baldin badaude. Borondatea falta da. Gobernu-taldearen jarrera besteek huts egin dezatela espero izatea dela uste du; gero kontentziosora joan eta hurrengo urratsa hitzarmena bertan behera uztea, Plan Orokorra aldatzea edo derrigorrezko desjabetzea egitea,... izango den galdetu du. Alkateak ez duela sinatzeko borondatea uste du.

Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza eta Ane Urkiola andreari esan nahi dio presaz aurkeztu den eta ezagutzen ez duen Hitzarmenaren aurrean gutxienez pentsatzen duena esan ahalko duela.

Ane Urkiola zinegotziak erantzun dio, koherenteena aurreko puntuan bezalaxe, hemen ere gaian parte ez hartzea izango litzatekeela.

Fco. Javier Iraeta indica que en la Comisión de Urbanismo no se informó de esa carta.

El Alcalde contesta que no informó porque la carta le llegó a el.

Fco. Javier Iraeta expresa que les ha llegado el eco de esa carta y por eso han planteado la moción.

El Alcalde cree que este debate no se debe producir hasta que el día 3 de diciembre se vea si la familia de Patricio Etxeberria firma.

Toma la palabra Ane Urkiola para indicar que toda la información que han recibido sobre este tema es porque han preguntado al Alcalde, creían que la firma era el 24 de noviembre y por eso se presenta la moción en este Pleno.

El Alcalde indica que el cambio de fecha es cosa del notario.

Ane Urkiola manifiesta que han realizado una serie de gestiones sin sacarles ningún tipo de rentabilidad y siendo leales con el Alcalde, pero este tema ya se ha alargado año y medio y la firma del convenio supone beneficios para el municipio. Cree que existe falta de voluntad.

El Alcalde indica que la voluntad se conocerá el 3 de diciembre.

Ane Urkiola cree que el Alcalde no se comunica con el resto de grupo. No comprende como es posible firmar un acuerdo en el que existen desacuerdos si no se habla. Cree que existe falta de voluntad. Cree que la postura del equipo de gobierno es que incumplan los demás, depuse ir al contencioso y pregunta si el siguiente paso será anular el Convenio, modificar el Plan General o pasar a una expropiación forzosa...cree que está claro que la voluntad del Alcalde es no firmar.

Toma la palabra Iñaki Sanchez para, dirigiéndose a Ane Urkiola, indicar que ante un Convenio que se presenta por urgencia y del que no tiene ni idea podrá por lo menos decir lo que piensa.

Ane Urkiola indica que lo coherente hubiese sido no haber entrado en el tema al igual que ha hecho en el punto anterior.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

Iñaki Sanchez zinegotziak hartu du hitza eta bere egunean presazko mozioetan zergatik ez zuen parte hartuko adierazi zuela esan du. Atentatu bat gaitzesteko presazko mozioa apartekoa dela uste du. Aldiz, mozio hau eta aurrekoa, antolakuntza-eta jarduera-araudiak dioenaren arabera, bozeramaileen batzordean aurkez zitezkeen eta, beraz, presazkoak ez direla uste du. Bestetik, bere iritziz gauza desberdinak dira batetik, hitzarmena sina dadila eskatzea eta bestetik, mozioan erabilerak finkatzea. Horren gainean hau da bere proposamena: udalerriko elkarte guztiekin etxearen erabilerei buruzko eztabaida sortzea edo, Ogasun batzordean proposatu zen bezalaxe, udal lokal guztien erabilerei buruz azterketa sakon bat egin dadila eta modu egokian erabiltzen ari diren edo gutxi erabiltzen diren zehaz dadila. Baina erabilerak modu horretan zehaztea ez dela bide egokia uste du: debatea eta parte-hartzea falta dira. Udal ondarearen erabilera erabakitzea Alkate jaunari badagokio, mozio hau onartzeak ez du eraginkortasun juridikorik eta Alkatea erabaki ahal izango luke zertarako erabiliko den etxea.

Fco. Javier Iraeta jaunaren iritziz, Hitzarmenean etxearen erabilerak finkatzen badira eta familiak erabilera horiei buruz duen iritzia azaldu badu, hori errespetatu egin behar da.

Iñaki Sanchez zinegotziak ez dagoela horrekin ados adierazi du.

Alkate jaunak hartu du hitza eta mozioaren presa erabakitzeke bozketa egitea proposatu du, mozioa eztabaidatzen ari baita bere presa erabaki gabe.

Ane Urkiola zinegotziak bi alderdiek adostutako Hitzarmena dagoela esan du. Lokalen azterketari dagokionez, Bozeramaileen batzordean jaso zuten azterketa horren berri eta bertan garbi esan zuen azterketa horretan ez liratekeela Bikuñaeneakoa eta etxe hau sartu behar, horiek zehaztuta dutelako erabilera. Azterketa horri buruz ez du ezer gehiago jakin: ez daki egin den edo ez, atera diren emaitzak,.... Gai baten edo beste baten presari dagokionez, bi moztotan koherentzia mantendu egin behar dela uste du, hau da, presazkoa ez dela ustez gero, ez parte hartu. Gizarte-larrialdietarako laguntzen gaineko mozioa aurreko ostiraleko Bozeramaileen batzordean aurkeztu behar zen eta horrela egin zen; modu

Iñaki Sanchez indica que ya ha explicado por que decidió en su momento no entrar en la mociones de urgencia salvo casos extraordinarios. Una moción de urgencia de repulsa de un atentado le parece un caso extraordinario, esta moción y la anterior, que se podían haber presentado el viernes antes de la junta de portavoces como dice el Reglamento Orgánico de Funcionamiento, no tienen nada de urgentes. Entiende, por otra parte, que una cosa es que se inste a la firma del convenio, que le parece muy bien, y otra cosa muy diferente es que en la moción se definan los usos. Propone que se haga un debate con todas las asociaciones del municipio sobre los usos del palacio o que se haga un estudio tal y como se propuso en una Comisión de Hacienda sobre la utilización de los locales municipales y si están correctamente utilizados o están infrautilizados. Pero no le parece correcto definir los usos de esa manera, sin debate ni participación. Insiste en que si la competencia para decidir el uso de un Patrimonio Municipal pertenece al Alcalde, por mucho que se apruebe esta moción no tiene virtualidad jurídica ninguna y el Alcalde podrá decidir para que lo usa.

Fco. Javier Iraeta opina que si en el Convenio se fijan los usos de esa casa y la familia manifiesta cual es su deseo sobre los usos de esa casa, hay que respetarlo.

Iñaki Sánchez no se muestra de acuerdo.

Toma la palabra el Alcalde para indicar que se va a proceder a la votación de la urgencia porque se esta entrando en el debate sin votar la urgencia.

Toma la palabra Ane Urkiola e indica que hay un Convenio que se acuerda entre las partes. En cuanto al estudio de los locales, indica que la única noticia que ha recibido sobre ese estudio ha sido en una Junta de Portavoces, en la que manifestó que este edificio junto con el de Bikuñaenea, no debían entrar en el estudio porque ya tenían un uso especificado. No ha sabido nada más de ese estudio: si se ha realizado o no, sus resultados... En cuanto a la urgencia de un tema y otro, cree que la coherencia debiera ser para las dos mociones, es decir, no entrar si se considera que no es urgente. La moción de las AES tenía que haberse presentado el viernes anterior a la Junta de Portavoces, y se presentó y repartió en la Junta de

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

horretan, taldeek mozioaren berri izan dute aurretik.

Agirre-Etxeberriren mozioa joan den astearteko Hirigintza batzordearen ondorioz sortu da. Hurrengo egunean zen Bozeramaileen batzordea eta hitzarmena azaroaren 24an sinatzekoa zen; beraz, justifikatuta geratzen da mozioa eztabaidatzeko presa.

Idazkariak hartu du hitza eta presa onartzeko behar den gehiengoari buruz argibide bat eman nahi duela esan du, aurreko mozioan gai honi buruz zalantzaren bat geratu dela uste baitu. Segidan, ondoko artikulua irakurri ditu: toki-araubidearen gaitan indarrean dauden legegadapenen 781/1986 Testu Bateginaren 51. artikulua eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 47.2 artikulua.

Presa erabakitzeko botoetara jo ondoren, onartu egin da emaitza hauekin: aldeko 8 boto (Alkarbideko hiru zinegotziak, EAJko 3 zinegotziak, PSE-EEko Oscar J. Luis Murillo Perez zinegotzia eta Ana Salinero) eta aurkako boto 1 (EB-Berdeak taldeko Iñaki Sanchez zinegotzia). Xotero Plazaola alkateak eta Mikel Alzelai zinegotziak ez dute botazioan parte hartu.

Segidan, Ane Urkiola zinegotziak aurkeztutako mozioa irakurri du.

Mozioa erabakitzeko botoetara jo ondoren, onartu egin da emaitza hauekin: aldeko 8 boto (Alkarbideko hiru zinegotziak, EAJko 3 zinegotziak, PSE-EEko Oscar J. Luis Murillo Perez zinegotzia eta Ana Salinero) eta aurkako boto 1 (EB-Berdeak taldeko Iñaki Sanchez zinegotzia). Xotero Plazaola alkateak eta Mikel Alzelai zinegotziak ez dute botazioan parte hartu.

Segidan, publikoko pertsona batek hartu du hitza eta Agirre-Etxeberriren hitzarmenari dagokionez, Alkateak familiak sinadura atzeratzeko presioa egin duela esan du eta hori hala izan den jakin nahi du.

Alkate jaunak 'presioa' hitza ez dela egokia esan du. Familiarekin negoziatzen egon da eta sinadura atzeratzen joan da. Uda bukaeran eguna zehaztea erabaki zuen. Beraz, bera familiarekin egon da negoziatzen baina berak ez du presioaz hitz egin.

Fco. Javier Iraeta zinegotziak mozioa onartua izan

Portavoces, quedando así garantizado que los grupos conocieran de antemano la moción.

La moción de Agirre Etxeberri es consecuencia de la Comisión de Urbanismo celebrada el martes, víspera de la Junta de Portavoces y la fecha prevista para la firma era el 24 de noviembre, por lo que la urgencia estaría suficientemente motivada.

Toma la palabra la Secretaria para realizar un aclaración sobre la mayoría necesaria para que la urgencia quede aprobada, ya que entiende que en la moción anterior ha surgido alguna duda en relación a este tema. Procede a la lectura de los siguientes artículo: 51 del Texto Refundido 781/1986 de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen local y el artículo 47.2 de la LBRL.

Sometida la urgencia a votación, se aprueba con 8 votos a favor (los tres concejales de Alkarbide, los tres del PNV, Oscar J. Luis Murillo Pérez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero) y el voto en contra de Iñaki Sanchez concejal de EB-Berdeak. Xotero Plazaola y Mikel Alzelai no participan en la votación.

Toma la palabra Ane Urkiola para proceder a leer la moción presentada.

Sometida la moción a votación, se aprueba con 8 votos a favor (los tres concejales de Alkarbide, los tres del PNV, Oscar J. Luis Murillo Pérez, concejal de PSE-EE y Ana Salinero) y el voto en contra de Iñaki Sanchez concejal de EB-Berdeak. Xotero Plazaola y Mikel Alzelai no participan en la votación.

Toma la palabra una persona del publico que manifiesta, en relación al Convenio Agirre Etxeberri, que el Alcalde ha indicado que la familia le había presionado para atrasar la firma del Convenio y desea saber si es asi.

El Alcalde indica que la palabra correcta no es presionar. El ha estado negociando con la familia todos los temas mencionados y la firma se ha ido retrasando. Al final este verano, tomó la decisión de poner una fecha. Por lo tanto se ha estado negociando con la familia; él no ha hablado de presión.

**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**



**ACTA DEL PLENO
DE LA
CORPORACION MUNICIPAL**

denez, hitzarmena sinatzeko ez dela abenduaren 3ra arte itxoin behar esan du. Alkateari familiarekin harremanetan jar dadila eta hitzarmena lehenbailehen sina dezatela eskatu dio.

Alkateak sinatzeko eguna notarioak jartzen duela erantzun dio. Familia handia da eta leku desberdinetan sinatu behar da hitzarmena; berak ezin du sinadura eguna aurreratu.

Ondoren, publikoko pertsona batek hartu du hitza eta Osoko Bilkuretako aktak zergatik ez diren udaletxeko Web-orrian argitaratzen galdetu du. Martxotik hona ez dira argitaratu aktak.

Alkate jaunak argitaratuta zeudela uste zuela erantzun du eta eskaria jaso du.

Alkateak, arratsaldeko 20:30ak direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

Fco. Javier Iraeta entiende que una vez aprobada esta moción no es necesario esperar al día 3 de diciembre para la firma. Le pide al Alcalde que se ponga en contacto con la familia para firmar antes.

El Alcalde contesta que la notaría pone fecha porque se trata de una familia bastante grande que tiene que firmar en diferentes lugares y el no lo puede adelantar.

Toma la palabra una persona del público para preguntar porque no se publican las actas de los Plenos en la web del Ayuntamiento. Ya que desde marzo están sin publicar.

El Alcalde contesta que creía que estaban publicadas y que toma nota.

El alcalde levanta la sesión, siendo las 20:30 horas, y para constancia de lo que se ha tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta de todo lo cual, yo, la secretaria, doy fe.

I

<p>Akta hau 2009/11/25an egindako bileran onartu zen:</p> <p><input type="checkbox"/> bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.</p> <p><input type="checkbox"/> baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.</p>	<p>Este acta fue aprobada en la sesión del día 25/11/2009:</p> <p><input type="checkbox"/> en su integridad, sin ninguna objeción.</p> <p><input type="checkbox"/> si bien en el acta de la sesión de dicho día se recogen las objeciones registradas.</p>
<p>Ainhoa urruela Bordegarai Idazkaria</p>	<p>Sotero Plazaola Odriozola Alkatea</p>